

Agurra, betiko?



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Puska batean ez zaigu ahaztuko joan den abenduaren 28an Iruñeko udaletxeko plazan bizi izandakoa.

Esanahi eta emozio handiko gertae-rak izaten direnean gertatu ohi den bezala, gaia bat izanda –Iruñeko alkate aldaketa, mozio zentsura bat medio–, azpigaiak asko dira. Zer esanik ez alkate ohiak berak, bere deklarazioekin, gasolina gehiago bota dionean mintzagaien suteari. Nago, eskailera-garbitzaileen kontura esandakoarekin, bere burua salatu ez ezik, Nafarroako eskuinean nagusi den ideologiaren litekeen potretarik perfektuena osatu duela. Konparaziorako, Mario Camusek pelikula oso bat, pelikula gogoangarri bat –*Los santos inocentes*–, behar izan zuen erretratatzeko, hark bezain ongi, Ibarrolak esaldi bakar batean erakutsi duen klasismoaren esentzia. Ibarrolak oso ongi emango luke Camusen filmean, zailtzarik ez horretan; eta badu zerbait justizia poetikotik alkate ohiaren ordezkatzeari gertatzeak Camusen filmari izena ematen zion egunean, Inozente Egunean, alegia. Bakarra, 39 urte itxaron behar izan dugula. Ze, jende honen arazoa da gutxi gorabeherako demokrazia gutxi gorabeherako formalaren 39

Orain ez da zaila
imajinatzea politikatik
bizi nahi duten
koadroak PPrean aurrean
ate joka, Tuterako
alkatetza baizik ez
daukan partiduak
eskaintzen ahal duenez
fio gabe

urtek, eta ez mende batek, eta ez bost mendek, ez dutela balio beren egiazko izaera aldatzeko.

Baina, eta artikulua luserak horrenbesterako aukera ematen duenez, hel diezaigun aferaren beste azpigai bati: gero eta gehiago dira UPNren desagertzearen atarian, edo desagertzearen hasieran, egon gintezkeela esaten duten ahotsak. Ez hain aspaldi, politikaz

nik baino askoz gehiago dakien analista batek zioen eskuin-erregionalistaren (UPN, CDN) edo eskuin-zentralistaren (AF, UCD, AP, PP...) arteko lehiaren arrazoiak zela benetan agintzen dutenak ez direla historikoki ados jarri Nafarroa menderatzeko formula edo marka egokienari buruz. Marka erregionalista bat 40 urtez baliatu eta gero, orain marka estatalistarantz lerratu omen da balantza. Sayas eta Adanero aitzindariak izan ziren, hortaz, eta orain ez da zaila imajinatzea politikatik bizi nahi duten koadroak PPrean aurrean ate joka, Tuterako alkatetza baizik ez daukan partiduak eskaintzen ahal duenez fio gabe. UPNk, egun, ez dauka lider balekorik, ez programarik. Haserre eta iraina baino ez. Konponduko al dute hori apirilerako? Eta, bestela, zer egingo dute hurrengoan ama eskailera-garbitzaile duten –edo bakarrik nafar sentitzen diren, edo forua probintziaren instituzionalizatzearen ardatza dela sinesten duten, edo ez Madrilen eta ez Bilboren morroi izan nahi ez omen duten, edo...– UPNren boto emaileek? Horra historia honen gakoetako bat.

Asironzaleoi, itxaronaldiaren luzeaz hausnartzea dagokigu. ●

bertako
igogailuak | ascensores

-rekin BAI!

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz **benetako 24/7/365** zerbitzuari
- Baietz **urrezteari** mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus